

PRESTAKUNTZA: EKONOMIA – FINANTZA KUDEAKETA

HELBURUAK

Ekonomia-finantza kudeaketa, lantegian aztertzeko eta ulertzeko hiru ikuspuntu nagusitatik: Kostuak, Errentagarritasuna eta Diruzaintza.

Lantegian enpresako kostuak kalkulatzeko teknika eta adibide praktikoak azalduko dira, sektorea eta enpresaren tamaina aintzat hartuta. Prestaldiaren ostean parte-hartzailea gauza izango da bere negozioaren kostuak identifikatzeko eta kontrolatzeko.

Ekonomia-finantzen kudeaketa aktiboa era praktiko batean asimilatzeke, ekoizpenaren MIX egokienarekin “jolastuko” gara eta salmentaren gutxieneko atalaseak aztertuko ditugu. Halaber, hausnartu eta ondorioak aterako dira zure negozioan funtsezko aldagarriek duten eraginaz: lehengaien salneurriak, jardueraren beherakada, soldaten igoera, makina berrien erosketa, etab.

Lantegi osoan kasu bat simulatuko dugu eta hori lagungarria gertatuko zaigu funtsezko marjinak interpretatzeko, gure zerbitzu/produktuari ezarritako salneurriaren arabera. Kasuak aztertzeko ikuspegi bi izango ditu, produktu/zerbitzuen araberrako Banakako Emaizta Kontua eta enpresaren Emaizta Kontua.

Halaber, ia automatikoki Emaizta Kontuak diruzaintzan duen inpaktua aztertuko dugu, kobratze eta ordainketekin adi egoteak duen garrantzia ulertuz, negozioaren epe laburreko finantza termometroa bailitzan. Errentagarritasuna eta diruzaintza, negozioaren bideragarritasunerako funtsezko gaiak. Edozein finantza erabakitan Kutxako Fluxu Operatiboek etorkizunean izan litezkeen likidezia ezaren arazoak aurreratuko dizkigutela ikusiko dugu praktikan.

Ikuspegi orokorrago batetik, aholkularitzaren betekizuna aztertuko dugu, zertarako balio zaigun Balantzea eta zeri erreparatu behar diogun, parte-hartzaile bakoitzak bere negozioaren egoera interpretatu eta aztertu ahal dezan. Finantzatzeko aukerak azalduko ditugu, oinarrizko ratio batzuk kontrolatuz, finantzazioa bilatu beharko bagenu prestatuta egoteko.

2019ko OTSAILAREN 5ko SAIOA (15:00 - 19:00)

Edukia

1. Costing: Eraiki ezazu lego bat 3 urratsetan zure enpresaren kostuekin.
 - Sarrera. Zenbat kostatzen da benetan nire produktua/zerbitzua?
 - Kostu-elementu guztiak identifikatzea.
 - Banatzeko irizpide bi ezagutzea: Full Cost eta Direct Cost.

- Kostuek Eraitza-kontuan duten efektua interpretatzea.
- Adibideak, kasu praktikoa.

2. Pricing: Salneurrik egokiena kalkulatzeko teknikak.

- Sarrera. Ziur zaude zure produktu/zerbitzuak salneurria egokia duela?
- Produktu/zerbitzu bakoitzaren gutxieneko salneurria kalkulatzea.
- Saldu behar den produktu/zerbitzuaren Mix onena.
- Saldu beharreko gutxieneko unitateen simulazioa. Errentagarritasun-atalasea.
- Eraitza-Kontua ulertzea, banaka eta orokorrean.
- Ekarpem-marjina eta marjina gordina aztertzea.
- Adibideak, kasu praktikoa.

2019ko OTSAILAREN 7ko SAIOA (15:00 - 19:00)

Edukia

3. Diruzaintza. Finantzatzeko konponbide eta aukerak.

- Sarrera: Bazen behin likidezirik ez izateagatik porrot egin zuen enpresa bat.
- Diruzaintzako aurrekontua sortu, aztertu eta kontrolatzea.
- Kobratzeko eta ordaintzeko batez besteko denboraren garrantzia.
- Balantzea. Enpresa osasuntsu baten adierazlea. Ratioak.
- Aholkularitzaren eginkizuna.
- Finantzatzeko aukerak eta bide interesgarriak.
- Adibideak, kasu praktikoa.

TUTORETZA PERTSONALIZATUAK

- 4 orduko tutoretza norberarekin hitzartuko da
- Landutako kontzeptuen aplikazioa enpresa bakoitzaren egoera konkretuan.
- Saio pertsonalizatuak parte hartzen duen enpresa bakoitzarekin, trebakuntzaren edukia enpresa bakoitzaren errealitate eta erronketan aplikatzeko